

# Europako hizkuntza gutxiagotuak

## EZ BEGIRATU INGELESARI, ERRUA ESTATU HIZKUNTZENA DA

Ekainak 23. *Hitzargiak* topaketak egin dira Hernanin. Europako hamabost hizkuntzako ordezkariak bildu eta hamahiru mahai-ingurutan entzule eta partaide izan dira. Bi egunetako jarduna kokatzeko lana Xavier Vilak hartu du. Soziolinguista eta Donostia 2016k gidatutako *Hitzargiak* egitasmoko batzorde zientifikoko kidea da. Europako hizkuntza aniztasunaz aritu da. Ez du zalantzan jarri hizkuntzak desagertzen ari direnik, baina hizkuntza gutxiagotuak hainbat arrazoiengatik balioa irabazten ari direla azpimarratu du. Bere hitzaldiaren ideia nagusiak bildu ditugu ondoren.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

### 1. ETA 2. IRAULTZA EKOLINGUISTIKOAK

“Lehen iraultzatzat jotzen da irudizko lengoaien sorrera. Haiei esker ezagutza askoz errazago gogoratu zitekeen. Bigarren iraultza K. a. 3.300 urtean gertatu zen; idazketa sortu zen. Lehen aldiz entzundakoa ikusten dugu, eta esaten duguna idazten dugunarekin lotuta da goela ikasten hasten gara. Eta idazten duguna esaten duguna baino hobea balitz bezala hartzen hasten gara. Era berean, ahozkoa idatzira murriztu genuen.

### 3. IRAULTZA ARO MODERNOAN: BATZUK BESTEAK BAINO HOBEAK

Lehen estatu nazional modernoak finkatzen dira, absolutismoari oso lotuta. Kodetze linguistiko olatua ematen da. Hirugarren iraultzan estatu hizkuntzak ezartzen dira, estatuak hasi dira ofizialtasun kontzeptua definitzen, nahiz eta terminoa ez duten erabiltzen. Alabaina, gero eta estatu gehiago daude eta gero eta gehiago erabiltzen dute hizkuntza zehatz bat. Mundu protestantean bereziki gero eta gehiago irakurtzen eta idazten da, eta horrek homogeneizazioa

dakar. Hizkuntza batzuk ez dira hiltzen, baina ez dira idazten, behe-alemanera adibidez. Hizkuntza gutxiagotuen hasiera da. Europa guztian gertatzen da, Frisian, Norvegian, Espainiar Inperioan, Italian... Hizkuntza batzuk askoz hobeak direla sinesten hasten dira, eta hizkuntza arruntak, horixe, arruntak direla.

### 4. IRAULTZA: ESTATU HIZKUNTZAK EZINBESTEKO BIHURTU ZIREN

XIX. mendea da. Estatu nazionalak gartzten dira. Subiranotasun nazionalaren ideia zabaltzen da. Lehen, subiranotasuna erregeak bazuen XIX. mendetik aurrera herriak izango du. Nazioa parte-hartze publikorako aukera duten herritarrek osatuko dute. Horrek herritarrek nazionalizatzea ekarriko du, nazioaren parte izan daitezen saiatzea, haiek nahi ala ez.

Hizkuntzaz ari garela, Europa orain baino askoz anitzagoa zen. Orain guk [hizkuntza adituek] lantzen ditugun hizkuntza asko bizirik zeuden, eremu ofizialetan salbu. XX. mendean ‘estatu bat hizkuntza bat’ ideia finkatzen da, hizkuntza nazionalak nahikoa izan behar

du eguneroko erabilera guztietarako. Horrek bertako hizkuntzak desagerraztea ekarriko du. Eraitza horretara bi bidetatik iristen dira. Bide frantsesa edo jakobinoa estatuko mugetan aniztasuna ezabatzen saiatzen zen. Austria-Hungariako bidean txekiarrak, eslovakiarrak, esloveniarrak, veneziarrak, kroaziarrak... daude. Orain estatu-nazio bateko biztanleak izango zarete, alemanez edo hungarieraz edo... egin behar duzue. Bada, alemana edo hungariera aukeratu beharrean haien hizkuntza hitz egiten zen lurretara aldatu ziren biztanleak. Estatu bat zuten haien hizkuntzan. Hirugarren bidea ere egon zen, bide suitzarrera. Oso herrialde gutxik jarraitu zuten, Finlandiak eta Belgikak neurri batean. Eraitza bera izan zen, estatuak hizkuntza nazionala nahikoa zela pentsatu zuten. Hizkuntza nazionalen eta gutxiagotuen arteko tartea areagotu zuen horrek. Gutxiagotuak diot zeren bertakoak gutxiagotu bihurtu ziren estatuen jokoaren ondorioz. Espainia zein bide aukeratu pentsatzen ari zen. Ikuspegi juridikotik esanda, ez zeukan indarrik horietako ezer ezartzeko.

## 5. IRAULTZA: ESTATU HIZKUNTZEN GAINDI

Gutxi gorabehera hor bizi gara. Estatu nazionalen ordena pitzatzen duten arrazoiak hainbat dira. Agerikoa da mundu hau elkartuago dagoela ekonomikoki orain dela 30 urte baino; agerikoa da ez gaudela bi bloketan banatuta, orain potentzia ekonomiko handi batzuen nolabaiteko multipolaritatea daukagu, eta potentzia berriak ere agertzen ari dira; agerikoa da jendearen mugikortasuna orain askoz handiagoa dela duela 30 urte baino. Ekonomia postindustrial horretan, ekonomiaren zati garrantzitsu bat informazioan oinarritzen da eta informazioa hizkuntzetan kodetzen da.

## 5. IRAULTZAREN ONDORIOAK

**Hizkuntzak desagertzen ari dira.** Baina, izan gaitetzen zintzoak, hizkuntza gehienak ez dira ari desagertzen azken iraultzagatik, bigarren, hirugarren eta laugarren iraultzengatik baizik. Munduko hizkuntza gehienak ez dira ordezkatzen mundu mailako hizkuntzekin, estatu hizkuntzekin baizik. Papua Ginea Berrian hizkuntzak desagertzen ari dira, baina jendea ez da ari ingeles estandarra bereganatzen, baizik eta tok pisin [Papuako hizkuntza ofiziala]. Beraz, ez da guztiz bidezkoa iraultza honi egotea hizkuntzen desagertzea. Askoz zuzenagoa da esatea aniztasunak gora egin duela jendearen mugikortasunagatik. Hemen daukazu Municheko dentista bat iragartzen duen panela [iragarkia sei bat hizkuntzatan dago].

**Nazioarteko hizkuntza bat baino gehiago ikasten ari gara.** Estatu-nazioek, eremu batzuetan behintzat, kontrola ezartzeko gaitasun gutxiago dute. Nahi ala ez nahi, AEBk dute hegemonia. Horrek eraman gaitu ingelesa luze-zabal ikastera, baina nazioarteko beste hizkuntza batzuk eremua irabazten ari dira. Kontinente amerikarra gaztelania hitzunik irabazten ari da, alemana hitzunik irabazten ari da, txinera ere kan-



WWW.LEPRESS.FR

Adibidez, okzitanieraren arerio nagusia ez da ingelesa, estatu hizkuntza den frantsesa baizik. Hala ere, Xavier Vilak esango digu estatuen mespretxu jarrerak aldatzen hasiak direla: "Ez diezaiogun geure buruari ziria sartu, hizkuntza askok egoera kritikoan jarraitzen dute. Alabaina, elementu batzuetan bestelako panorama ikusten da, demokratizazio eta deszentralizazio prozesuengatik, hizkuntzen berrinterpretazioagatik (bertakoaren eta benetakoaren sinbolo dira orain hainbat hizkuntza). Horrek adierazten du hizkuntza gutxiagotuak kapital bat izan daitezkeela".

paina egiten ari da Txinan bertan, eta nazioarteko hizkuntza bezala ere bai.

**Hizkuntza gaitasunak merkantilizatu ditugu.** Zein hizkuntza dakizun, bizimodua ateratzeko balioko dizu ala ez. Taxi gidari bazara hizkuntzak jakiteak lan aukera gehiago eskainiko dizu. Turismoa da adibide nabarmena, baina ez da bakarra, teknologia ere hor dago. Baita erlijioa ere. Aitortza egingo dizun apaizak ere zein hizkuntza dakizkien esango dizu [Alemaniako adibidea hori ere].

**Elebitasuna ez da jada anomalia.** Elebitasuna eta eleaniztasuna zer diren kokatzera eraman gaitu aurrez esandakoak. Orain dela 50 urte ez ziren erabiltzen bi kontzeptuok, elebitasuna hainbat eremutan iraina zen ia: 'Ez da zientzia, ez dago, anomalia da', esaten zen akademian. Gaur egun, Donostiako

kaleetan afixak irakurriko dituzu: 'Ikasi ingelesa eta izan zaitez elebidun!'. Positiboan esaten da, *guay* edo *cool* dela esateraino.

**Elebakartasun militantearen atzerakada.** Orain dela hamarkada gutxi arte, intelektualak gai ziren elebakartasuna gizakientzako egoera ideal bezala azaltzeko, eta beraz, elebakarrak ez zirenek trantsizioa egin behar zuten egoera elebatar zorionsura iristeko, estatu-nazioko hizkuntzan. Aldatzen ari da. Ez dugu esango guztiz eta toki guztietan aldatu denik eta arkadia zorionsuan gaudenik, baina aldaketaren sintomak Europa osoan ikusten dira. Adibidez, Frantzian ez dira ausartzen hizkuntzen aldeko mugimenduak debekatzeko eta diruz laguntzera ere iritsi dira. 1950ean hizkuntzok *patois* zikinak zirela esango zuten". ■

BABESLEA: IVAP

<p>HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA</p>	<p><b>Enplegu Publikoa</b> Lan-eskaintzen harpidetza Lan-poltsak (Eusko Jaurlaritzan) Beste administrazioetako lan-eskaintzak Haurtanet Osakidetza. 2014-15eko Enplegu Publikorako eskaintza Ertzaintzaren XIV. Promozioa Enplegu Publikoaren Eskaintza. Eusko Legebiltzara</p>	<p><b>Prestakuntza</b> Administrazio orokorra Toki Administrazioa Foru aldundiak Berariazko hizkuntza prestakuntza EVEU Prestakuntza jardueren homologazio prozedura</p>	<p><b>Euskara</b> Euskara ikastaroak Hizkuntza eskakizunak Berariazko hizkuntza prestakuntza Argitalpenak Euskaraz lan egiteko baliabideak IZO - Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala</p>	<p>puskad.eus</p>